

Srebrenicako sarraskien buru izateak bilakatuko zuten ezagun, baina gazte zela poesiak batu zituen Sarajlic eta Karadzic. Poetari bereziki etsigarria egin zitzaion, ordea, kide izan zuen lagunaren bilakaera.

Ilunpetan erreizitzen

Erri De Luca idazleak ilunpetan gogoratzen du Sarajlic, herri-kideei bere poemak buruz erreizitzen, setio garaian, elektrizitate-rik gabe geratutako hirian. De Luca sasoi hartan idatzitako *Agurren liburu*a nabarmentzen du. *Después de mil balas* gaztele-

Intelektual askok gerra hastean alde egin zuten, baina Sarajlic Sarajevon geratu zen, eta handik ezagutu zuen setioa

50eko hamarkadan, serbokroazierazko literaturari ate berriak ireki zizkion Sarajlicen idazkera ia narratiboak

razko antologiarako idatzitako hitzurrean. «Poema horietako batean, granadek hustutako kale bat agurtzen du, beste batean pasatzeari utzi dion tranbia bat. Gerra batean, poeta Noe moduko bat da, bere paperezko itsasontzian pertsona eta leku sorta bat biltzen, euriteaz babesten, eta gerra-osteko lur idorretan jaitzarazten».

Sarajlicek XX. mendekotzat zuen bere burua, eta, 1998an, haren emazte Ida Kalasen heriotzaren ostean ere, epilogo moduko batean sentitzen zen. 2002an hil zen, ezinbestean, Sarajevon bertan. Hil osterako, bere poemetari-ko batean idatzita utzi zuen aski zela tragediez urrun mantenduko litzatekeen kale arunt bat. «Gure gaztaroko hirian nabil pasean, / eta nire izena izango duen kale baten bila. / Kale handiak, zaratatsuak, / historiako izen handientzat uzten ditut. / Zertan nabilen ni historia egiten zen bitartean? / Zu maitatzen, besterik gabe. / Kale txiki baten bila nabil, xumea, ohikoa, / zeinetan, inoren arretarik piztu gabe, / pasean ibiliko baikara, baita heriotzaren ostean ere. / Ez da ezinbestekoa paisaia ederra izatea, / eta ez du zertan txoririk eduki ere. / Arriskuan den edozein gizon edo txakurrek/ bertan babes hartu ahal izatea da garrantzitsuena. / Ederra litzateke harriztatuta balego, / baina hori ere ez da nahitaezkoa. / Garrantzitsuena da / nire izena daraman kalean / inori zoritxarrik ez gertatzea».

Haurrak onik dira

Aiura Sampedro

Irun Hiria Literatura saria irabazitako L.A.A. nobela argitaratu zuen Zugastik joan den urtean, eta urtebeteko epean dakar Ereinen eskutik bigarren narratiba lana. L.A.A. hura bizi esperientzia batean oinarritutako kontaketa omen zen; idazle tolosarrak genero indarke-riari lotutako kontaketa bat onduz garatu zuen thriller psikologikoa. Antzeko bidetik dator kigu *Ahotsak eta itzalak* hau ere, ez agian esperientzia pertsonalean oinarriturik, baina bai bizi izan dugun herri esperientziari loturik.

Nobelak 36ko gerraren garaiko minera jotzen du. Gerratik iheska semeak hartu, eta emaztea eta alaba jaioterrian utzita erbestera jo behar izan duen gizonaren istorioak gidatzen du kontakizuna. Nobela historikoaren zantzuak ditu kontakizunak, eta nobela beltzaren kutsua hartuz joango da tantaka.



'Ahotsak eta itzalak'

Idazlea: Maixa Zugasti. **Argitaletxea:** Erein.

Genero beltzaren ezaugarriak biltzen ditu, beraz, Zugastiren nobelak; hainbat espazio eta pertsonaia tartekatuz aurrera egiten du tramak, eta amaierara arte tentsioa mantentzen da. Fragmentarismoa gailentzen da kontaketa, eta irakurleak piezak lotuz istorioa eraikitzeko aukera izango du, mosaiko baten antzera. Hala ere, pertsonaia nagusi bat nabarmen dezakegu nobelan: Arturo, txikitari aitaren eskutik erbestera alde egin behar izan zuen mutikoa. Dagoeneko heldu da erbestealdiko mutikoa, eta txikitatik kolpatzen duen misterio bat argitu nahirik hasiko du trama gidatuko duen ikerketa: Zergatik alde egin ote zuen aitak bi semeak hartuta eta ama eta alaba jaioterrian utzirik? Amak egin al zion uko herria uzteari? Haurraren begirada tresna egokia zaio idazleari; inozentziak begiratzen duen munduan misterioa mantentzen laguntzen dio, haurraren irudimenak sortutako gertakariak eta egiaz jazotakoak nahasten baitira.

Polita iruditu zait Arturok haur denborara egindako bidaiaren bidez Zugastik ere gaztetako irakurketei egindako omenaldia.

Irakurketa guztian zehar, eten-gabeak dira testu nagusia aberas-teko aukera ematen duten haur eta gazte literaturako klasikoen erreferentziak. Gainera, testu arteko jolas hori alderdi implizitua-goei ere luza dakieke; nobela historikoaren marko horretan, fikziozkoak ageri diren leku eta pertsonaia irakurleari ezagunak egingo zaizkio.

Haur denborako istorioaz gain, beste plano bat ere desberdinu behar da: orainaldikoa. Bertan, misterioa argitzearekin batera, idazketaren muina hartzen duen arazoak agertzen dira: bate-tik, misterioa askatzean desku-brituko den traizioaren ausia. Li-teraturaren historiako gai nagusietakoa ere Zugastiren ar-dura nagusietakoa izango da, eta traizioa azalertzeko konta mo-duak esperimintatuko ditu. Bes-tetik, testigantzen bidez errua garbitzeko moduak esploratuko dituzte pertsonaiek.


Denboraz eta lekuez harago, esango nuke diskurtsoan antze-man ditudala sinesgarritasunare-kiko arazo batzuk: zenbaitetan elkarriketak metaforikoegiak dira, eta bat-batekotasuna gal-tzen dute.

Amaren heriotza

Joannes Jauregi

Gaur ama hil da. Edo atzo beharbada, ez dakit». Hala euskara-tu du Josu Zabaletak Camusen *Arrotza*-ren hasiera ezaguna. Egileak hasiera horretan bertan ematen dizkigu, ia oharkabean bada ere, nobela osoari zutik eusten dioten habe-ak: protagonista narratzailearen indiferentzia, soraiotasuna, eta are, zinismoa, oro absurdorantz taxutua.

Izan ere, amaren heriotza kon-tatzeko duen apatia horrek berak bustitzen du Mersault protagon-istak nobela osoan duen begira-da. Haren jarrera ez da sekula al-datzen, nahiz eta «gaur ama hil da» horrek gertaera kate bat abiarazten duen, zeinak izugarri-keria zurrumbilo batean murgil-tzen duen protagonista ezari-azarian. Tramaz beraz apenas esan daitekeen ezer gehiago, per-sonaia nagusiak izugarriko urruntasunez –*arrotzasunez*– kontatzen baitigu gertatzen zai-ona, kasik beste inori gertatzen



'Arrotza'

Idazlea: Albert Camus. **Itzultzailea:** Josu Zabaleta. **Argitaletxea:** Erein.

ariko balitzaio bezala. Ezerk ez dio eragiten, indiferente eta so-raio beti. Alde horretatik, Mersault dugu nobelako *arrotza*. Ha-lere, batzuetan hainbestekoa da aldea kontatzen zaigunaren eta kontatzeko modu hotz horren ar-tean, non kosta egiten baitzaigu ohartzera zer ari garen irakurtzen. Alde horretatik, nobelak irakur-lea bera *arrotzen* du; irakurlea ere bada nobelako arrotza, prota-gonista bezainbeste, bederen. Ba-da, alde biko labana horren aho-tik irakurri behar dugu eleberria.

Aditu batek baino gehiagok esana da protagonista arrotz ho-rrek ekarpen handia egin ziola li-teraturaren historiari, XX. men-deko abangoardia artistikoan sortu zen nitasun modernioa fin-katzen lagundu zuen heinean. Mersault nitasun ziniko baten eredu da, bere inguruetatik zeha-ro alienatua dagoen norbanakoa-ren eredu. Ez da harriztekoa, ele-berria agertu zen testuinguruari erreparatuz gero; izan ere, 1942. urtean kaleratu zuten, Bigarren Mundu Gerraren erdian, hain zu-zen. Hala, eleberriak primeran is-latzen du –zeharka bada ere– ge-rrak ekarritako krisi giroa, zein-ak, besteak beste, existenzialismoa eta hari dagoz-kion gogoetak eta zalantzak (nor-

banakoaren askatasuna, ezereza, existitzea bera...) hauspotu zi-tuen. Giro horri dagokio *Arrotza*. Camusek berak azaldu zuen no-belaren premisa: «Gure gizarte-an, amaren hiletan negarririk egi-ten ez duen orok du hiltzera kon-denatua izateko arriskua». Hortaz, lehen begiratuan exis-tentzialismo horrek plano indibi-dual bati eragiten dion arren, badu gizarte osoa astintzen duen dimentsio bat, batik bat nobela-ren bukaera aldera gorputzen dena.

Nobelaren irakurketari berari dagokionez, onartu beharra dago monotonoa izan daitekeela, au-rerera egin ahal ia inpresioa ema-ten baitu urte guztia ahots asper-tu batek narratua dagoela. Be-harbada monotonia horregatik guztiagatik da are ederragoa no-belaren bukaera, non ustekabeko lirismo bat emaltzen baita konta-era apatiko eta estilo hotz horre-tan, hain zuzen arrotzaren borro-ka klimaxera iritsi ahala. Zaila da erabakitzea ea bukaeran errotoiko estilo aldaketa bat dagoen, ala, al-diz, nobelak estilo beraren baitan aurkitzen duen lirismo hori. No-lanahi ere, amaiera benetan ede-rra da, eta, nire ustez, erabat kon-pentsatzen du hasieran eman de-zakeen asperdura sentsazio oro.